



COMÈTE

**II. MUNDU GERRAN EUSKADIN BARRENA IHES EGITEKO
ERABILI ZEN SAREA
(1941-1944)**



ERRENERIAKO UDALA.
COMÈTEN LAGUNEN ELKARTEA
OFFICE NATIONAL DES ANCIENS CMBATTANTS (PAU).

Testuingurua

1940ko maiatzean, Dunkerqueko borrokaren ostean, tropa alemanek aurrera agudo egin zutelako edo, Frantziako iparraldean eta Belgikan zeuden hainbat soldadu britainiar isolaturik geratu ziren. Ikusten denez, ez zuten Atlantiko eta Mantxako Kanaletako portuetan berriro garaiz itsasoratzeke denborarik izan. Handik laster, lurreratzen zituzten aliatuen abioietako tripulazioek Britainia Handira itzultzeko



Hendaiaiko frontera

modua bilatu behar zuten. Zeukaten aukera bakarra Pirinioak aldera jo, Espainiara iritsi eta hemen Britainiako eta Ipar Ameriketako kontsulatu etako ordezkariekin harremanetan jartzea zen. Baina horretarako, jakina, lehenik Frantzia eta Belgikako muga igaro behar izaten zuten, gero okupaturik zegoen Frantzia osoa gurutzatu, ondoren Pirinioak pasa eta Espainia frankistara iritsi. Horrela, 1941az geroztik hainbat lagunek erdietsi zuten oztopo horiek guztiak gainditzea, nahiz eta kontrol, polizia-jazarpen eta infiltratu asko izan tartean. Pentsa liteken moduan, erne eta zuhur ez ibiltzeak eta salaketek arriskuak gehitu egiten zituzten. 1942ko azarotik aurrera militar aliatuekin, gerratik ihes egindakoekin eta Afrikako Iparaldean borrokak berriro hasi nahi zituzten boluntarioekin bat egin zuten juduen aurkako jazarpenetik ihes egin zutenek, alemantzako derrigorrez lanean ari behar zutenek (S.T.O.) eta erresistentzien aurkako errepresaliatsuek. Une

horretatik aurrera Pirinio bazter hauetan berrogei bat sarek lana egin zuten, eta 150-180 mugalarik. Zailtasunak ere dezente izan zituzten, batik bat euskal muga inguruan jendearen joan-etorriak eta trenbideak zorrotz zaintzen zituztelako, eta guztien gainetik Baionakoa eta Donibane Lohizunekoa.

Comète sarea: lehen urratsak, lehen ezustekoak.

1941eko hasieran, Belgikan, Andrée de Jongh, 24 urteko gazte bat eta bere herritar Arnold Deppé-k, Gaumont zinematografi enpresako injineruak, -gerra aurrean euskal kostaldean lanean aritua zelako- Pirinioetatik ihes egiteko sare bat sortzea erabaki zuten. Horrela, urte bereko maiatzean, Arnold Deppé Angelun errefuxiatuta zegoen Bruselako Gref familiarekin harremanetan jarri zen. Familia honek gerra aurretik zeuzkan harremanak direla medio, Francoren aurkako errefuxiatuekin jarri zen harremanetan eta hauen bidez iheslariak hartzeko eta muga gurutzatzeko prest zeuden jendea aurkitu zuen. 1941eko uztaila amaiera aldera, iheslariak muga igaro eta jasotzeko modua antolatzeke asmoarekin, Dedée de Jongh Bilbora joan zen kontsulatu britainiarrarekin harremanak izateko. Han, behin mesfidantza guztiak uxatu ondoren, Dedèek bere proiektua azaldu eta konbentzitu zituen. Eta ondorioz, Comète sarea abian hasi zen, lanean alegia. Antolaketa lau zutabetan oinarritzen zen: Belgika eta Frantzia Iparraldekoak iheslariak eskurtzen zituen. Parisekoak, aldiz, Hego-mendebalderaino ekartzen zituen. Euskal kostaldekoak, ostera, muga gurutzatzen zuten. Eta azkenik, Donostia iritsitakoan -Oiartzun eta Errenteriatik pasa ondoren-, prestaturiko etxeetan sartu eta aliatuen enbaxaden menpeko zerbitzuek jasotzen zituzten bitartean itxaroten zuten iheslariak.

1941eko udan, antolatu zituzten lehenetariko konboi batean, Arnold Deppé atxilotu zuten. Gero, 1942an eta 1943an sareak kolpe latzak jaso zituen Belgikan eta Parisen. 1943ko urtarrilaren 15ean Andrée de Jongh atxilotu zuten Urruñako Bidegain-Berri baserrian aliatuen hiru abioi-gidarekin batera. Jabea, Frantzia Usandizaga eta landa-lanetan laguntzen zion Juan Larburu, berez Hernanikoa, hilak izan ziren Alemaniako kontzentrazio-zelaian. Hala eta guztiz ere, Comètek eraginkortasun osoz lanean jardun zuen 1944ko ekaineraino.

Andrée de Jongh



Ezizenez "Dedè" deitzen zioten, bere aitak, berriz, "txiki oldartsua". Dedè Malmédyn (Belgika) publizitate-marraskigile eta diplomadun erizaina zen. 1940an Gurutze Gorrian sartu zen, eta Brujaseko ospitale militarrean destinatu zuten. 1941eko hasieran Bruselara joan zen, eta hemen, gorde-ta egoten ziren soldadu britainiarrei ostatu, janariak eta arropa ematen zien elkarte-solidario batean esku hartu zuen. Arnold Deppé atxilotu ostean, bera bakarrik geratu zen elkartearen buru, gero ia-ia Comète sarean bihurtu zena. Belgikan Gestapok hurbiletik jarraitzen zionez, Frantziako Valenciennesera etorri zen, eta geroago Parisera. Florentino Goikoetxea mugalariarekin batera 118 abioi-gidarik ihes egin zezaten parte hartu zuen muga 33 aldiz gurutzatuz. 1943ko urtarrilaren 15ean atxilotua izan zen Urruñako "Bidegain-Berri" baserrian eta Ravensbruckera deportatu zuten. Hala ere bizirik iraun zuen, eta gerra ondoren, erizain gisa giza-laguntzaile lanetan aritu zen

Kongo, Kamerun eta Etiopiako legenardunegietan. Belgikako erregeak kondesa titulua eman zion. Bere ahizpa ere kontzentrazio-zelaira eramane zuten eta bere aita naziek fusilatua zuten.

Florentino Goikoetxea



Comète sarearen mugalari ospetsua zen, beste erresistentzia-sareentzako ere lana egiten zuena. Hernaniko "Altzueta" baserrian (Gipuzkoa) jaioa 1898an. Frankistek gerra irabazi ondoren Ziburun errefuxiatu zen. Denboraldiko lanak egiten ibiltzen zen, eta batez ere, kontrabandoan. Gizon bizkorra eta iraupen handikoa zenez, Urruñako "Bidegain-Berri" baserri-tik jende-taldea hartu eta (10 baino gutxiago) Oiartzungo mendietara eramaten zituen, gero besteek Donostia aldera eramateko. Jakina, gauz eta oinez eramaten zituen, ondoren, goizaldera frantziar erresistentziarentzat posta ekartzen zuen. 227 abioi-gidari aliatu pasa zituen, gehien gehienak britainiarrak, iparamerikarrak eta kanadarrak. Alemanen patruila batek tiroz mendian zaurituta 1944ko uztailaren 6an atxilotua izan zen. Hogei egun geroago, Antoine López erresistentziako poliziak antolaturiko komando batek Baionako ospitaletik erreskatatu zuen, hain zuzen, biharamunean Gestapo bila joan baino lehen. Florentinori Ingalaterrak, Belgikak eta Frantziak ematen ahal zizkieten kondekoraziorik handienak eman zizkieten -egun Altzueta baserrian daude-. Horrez gain, 1965ean nazionalitate frantsesa eman zioten. Gero, 1980an zendu zen, eta Ziburuko hilerrian lur eman zioten.

Eusko taldea



Elvire de Greef, ezizenez "Tante Go", Angelun bere familiarekin errefuxiatuta zegoen belgikarra zen. Hegoaldeko Comèten zuzendaritza hartu zuen 1941etik 1944era. Bere senarra Fernand-ek Angeluko Herriko Etxean egiten zuen lan itzultzaile eta okupazioko alemaniar agintariekin harremanak izateko arduradun

gisa. Esan liteke laguntzaile onak izan zituela, esaterako, Francois **Dommain** Baionako alkate eta Lizeoko irakaslea, eta bere bi alabak, 1941eko ekainean kargutik kendua izan zena. Baita Udaleko langile **Veronique Mendiburu** eta bere seme Jules "Julot". Elvirek, pazientzia handia hartuz, Comète amaraun sare osoa antolatu zuen. Lehenik Baionan eta Angelun, **Edouard Dassié** inguruan funtzionatzen du. Bera Posta etxe-ko langilea eta gerrako elbarria da (14-18). Bere emazte **Marthe** eta alaba **Luciennek** (15 urte) laguntzen diote. 1943ko martxoan Gestapok atxilotu zituen, eta ondoren, konzentrazio-zelaira eraman. Sareari lagundu zion ere Angelun janaridenda zeukan **Leontine Danglede** andreak, batez ere inguru horretako harremanen berri eta iheslariei jana hornitzen. **Marthe Mendiare** andreak, berriz, Angeluko bere etxean jasotzen zituen. Beste euskal laguntza-puntu bat Ziburu eta Donibane Lohizun aldean izaten zuten, eta "Kattalin" ezizena

zeukan **Catherine Agirre**, Saran sortutako 45 urteko gerrako alarguna zen zutabe nagusia. Francoren aurkako euskal errefuxiatuekin harreman estuak zituen, hainbat sarerekin lana egiten zuen posta pasatzen eta iheslariak mendi aldera ateratzen ziren bitartean bere etxean gordetzen.



14 urteko bere alaba **Fifinek** ere laguntzen zion. Halaber, auzoko **Gracie Ladouce** andreak. Honek Ziburuko Herriko Etxeko horniketa-zerbitzuan lana egiten zuenez, arrazoinamendu-txartelak lortzen zituen. Florentinok bezalaxe, Kattalinek gerra ondoren hainbat domina jaso zituen. Hots, Legio Ohorearena, Domina Militarra, Gerrako Gurutzea, Erresistentziaren Domina eta Belgikako eta Ingalaterrako kondekoraziorik altuenak. 1992an zendu zen, eta Ziburuko hilerrian lurperaturik dago, Florentinoren hilobitik hurbil.




Baionan, Dassié familiaz gainera, euren ahaideak ziren Robert **Lapeyre** eta bere emazte **Ivonnek** ere esku hartu zuten abioi-gidariak jasotzen eta pasabideak prestatzeko lanetan. Euren jendaki Dassiétarrak atxilotu zituztenean, Bidasoa pasa zuten 1943ko martxoaren 14an Florentino

lagun zutela. Horrela, Sarobe baserritik eta Errenteriatik pasa ondoren, Donostiara heldu ziren Armendariztarren etxera. Hemen 15 bat egun egin zituzten Gibraltar aldera joan aurretik.

Edmond Speraber medikua, I. Mundu Gerrako gudari ohia eta 40ko batailetan mediku militarra izan zen. Donibane Lohizunen jarri zen bizitzen eta hemen Comèteko eri eta zaurituei kasu egiten zien. Horrez gain, "Democratie" eta "Nana" moduko erresistentzia-sareekin ere orpoz horko lan egin zuen.

Bestalde, esan behar da behin Bidasoa gurutzatutakoan ez zela dena amaitua egoten. Horregatik, Iriarte familieren Sarobe baserriak, Oiartzungo Ergoien auzoan dagoenak, ikusteko izugarria izan zuen Comètek antolaturiko segurtasun sistemari. Iheslariek, Bidasoa pasa ostean, hor



Javier



Arg. J.C.Aberasturi

Sarobe baserria

amaitzen baitzuten lehenengo etapa, eta hor elkartzen ziren "Dedée", "Franco" eta Florentino, Altzibar auzora jaitsi baino lehen. Hemen Arbide-Garaiar familiak -1944an atxilotua izan zena- laguntzen zien Erretereria aldera eramaten, eta ondoren, Donostiara.

Parte hartu zuten guztiak aitatzera ezinezkoa bada ere, ez liteke aitatu gabe utzi, esaterako,



-**Frédéric de Jongh**, "Paul" ezizenez ezaguna zena, "Dedée"ren aita. Izan ere, bere alabak Parisera ihes egin behar izan zuenean, haren lekua hartu zuen Belgikan, nahiz eta geroago honek ere bide bera hartu behar zuen polizia naziak atzetik zituela sumatu zuenean. Bere alaba atxilotu zutela jakin zuenean uko egin zion

Espaniara pasatzeari eta berriro Parisera itzuli zen ezkurtuko lanetan jarraitzeko. Baina salatua izan zen eta Mont Valérien (Paris) fusilatu zuten 1944ko martxoaren 28an.



- **Jean Greindl**, ezizenez "Nemo", Belgika eta Holanda osoan hainbat adar zituen elkarte ongile bateko zuzendaria. Gizon honek elkarte estalki gisa baliatuz Comète hornitzen zuen. 1943ko apirilaren heriotza zigorra eman zioten, baina 38 urte zituela hil zen espetxean aliatuek bonbak jaurti eta gero.

- **Antoine d'Ursel**, ezizenez "Jacques Cartier", I. mundu gerrako (14-18) gudaria. Gerra lehertu zenean Indotxinan zegoen eta handik etorri zen R.A.F.en sartzeko asmoarekin, nahiz eta ez zuen lortu. Informazio-sare batean (Clarence) oso sartua zegoen, baina "Nemo" atxilotu zutenean Belgikako Comète zuzendaritza hartu zuen. Gero, 1943ko abenduaren



22an itota hil zen Bidasoa gurutzatzerakoan. Bere gorpua eta berarekin batera itota hil zen iparamerikar abioi-gidari **Jim Burch** alemanek aurkitu eta Biriatura eraman zituzten, eta gero bertatik inolako arrastorik utzi gabe desagertu. Halaxe gogorarazten du Bidasoako San Miguel deituriko tren-estazio parean dagoen disko-antzeko hilarri batek.



- Donostiako **Bernardo Arakama**, gerra zibileko gudari ohia, eta **Federico Armendariz** izaten ziren Comètek Espainia frankistan zeuzkan laguntzaileak. Arakamak -1943ko azaroaren 13an Donostian atxilotu zuten jarri zuen "Dedée" Florentino Gokoetxearekin harremanetan. Armendarizek eta bere andreak iheslariak euren etxean hartzen zituzten. Do-

nostian asko lagundu zuen ere **Luis Lizarriturri Unzueta** jaunak, Belgikako Donostiako kontsularen albokoa. Gizon hau bera arduratu zen Miranda de Ebroko kontzentrazio-zelaian atxilotuta zeuden belgikarrez.

- **Maritxu Anatol**, arrisku orori aurre egin zion irundar ospetsua. Honek, Alemanen okupazioak iraun zuen bitartean Donibane Lohizunen errefuxiatuta zeuden euskal exiliatu talde batekin -Bizkaiko **Martin Hurtado de Saracho**, Arabako **Ambrosio San Vicente** eta Nafarroako **Alejandro Elizalde**-kolaboratu zuen iheslariak muga pasa zezaten, hots, ostatua bilatzen eta janariz hornitzen.



- **Manuel Iturrioz**, Oresakoa (Gipuzkoa), mikelete eta gerra zibileko gudaria izan ostean, errefuxiatu eta Donibane Loizunetik Bidasoa pasatzen jarduten zuenatariko beste bat da.


- Era berean, derrigorrezkoa da aita-tzea Belgikan jarduten zuten "**Michou**" eta bere ahizpa "**Nadine**" **Dumond** eta hauen gurasoak; Valenciennes-en "**Charlie**" eta Elvire **Morelle**; Parisen **Robert Aylé** eta Angelun **Janine de Greef**, etab.



"**Franco**" deituriko gizona eta muga gainditzeko pasabideen antolaketa.

Bidegain-Berrin 1943ko urtarrilean eman ziren atxiloketen ondoren, Jean François Nothomb belgikar gazteak, ezizenez "Franco", 1941ean ihes egitea erdietsi zuen presoak, ahaleginak egin zituen lehengo jardunarekin jarraitzeko. Pasabide berriak antolatu eta atxilotuak ordezkatu zituen.

Comète sarearen bide alternatiboak Nafarroako mendietan barrena



Zuhur eta erne ibili beharra zegoenez, utzi egin zuen denboraldi baterako Urruñako pasabidea, eta horren ordez Ezpeleta eta Larresorotik beste pasabide berriak antolatu zituen, baita Dantxaria eta Saratik ere. Hala ere, ez zuen zorte gehiegirik izan, besteak beste, pasabide berrietako batean, Elizondo aldean (Nafarroa), atxilotu zutelako 1943ko otsailean. Aliatuen enbaxadek presio handia egin zutelako laster askatu zuten, eta Londonera joan beharrean berriro Frantzia okupatura pasa zen. Iheslariak, muga hurbileko geltokietan izaten zen bigilantzi estuari ihes egiteko, Bordeleko geltokian jaisten ziren. Gero autobusez Daxeraino, eta handik bizikletaz Angelu aldera, eta geroago Ezpeleta aldera etortzen ziren. Martin Garat, Larresoroko okina, Henri Claverie, Baionan mekaniko aritzen zena, eta bi trenbideko langile arduratzen ziren iheslariak hartzeaz eta bizi-

kletak jaso, konpondu eta Daxera itzultzeaz. Aliatuak abioiekin Alemanian geroz eta gehiago sartzen zirenez, eta ondorioz baita galdu ere, handik eskapatzen ziren gidariak Espainiara eramatearren, "Franco" k beste bost mugalari berri prestatu zituen (Michel Etchevest, Jean Elizondo, Etchegoyen, Pierre eta Jean Baptiste Aguerre). Hori horrela, abioi-gidari asko salbatu zituzten 1943ko otsailetik 1944ko ekainaren 4a bitartean. Uste denez, azkeneko aldiz muga pasa zuten eguna. Bien bitartean, "Paul" (Andrée de Jongh-en aita) 1943ko ekainaren 6an atxilotu ostean, "Franco" bihurtu zen Comèteko buru. Britainiar agintariekin harreman zuzena zeukan, eta Florentinoren laguntzarekin bakarrik, hainbat jende pasatu zuen. Azkenean, 1944ko ekainaren 18an Parisen atxilotu zuten.

Kolaboratzaile ororen oroimenez

Ezinezkoa da hemen Belgikatik Donostiara heldu bitartean, askotan bizia arriskuan jarritz, Comète inguruan lanean jardun zuten guztiak gogoraraztea. Ia-ia 1.700 izan ziren, horietatik 160 fusilatuta edo erbesteratuta hil ziren, eta horien artean euskaldun zenbait, esaterako, **Frantxia Usandizaga**, Urruñako "Bidegain-Berri" base-rrian 1943ko urtarrilaren 15ean atxilotua. Iheslariak hemen pasatzen zuten gaua Bidasoa gurutzatu baino lehen. Orobat Frantxiari laguntzen zion **Juan Larburu**, Francoren armadarengandik ihes joan zen hernaniarra, eta Elizondoko **Alejandro Elizalde**, Donibane Lohizuneko mugalarietako bat. Guztira, Comèteri esker, 800 bat abioi-gidarik ihes egitea lortu zuten.

"Comète Lagunak Elkarteak" urtero mendi-ibilaldi bat antolatzen du Florentino eta aliatuen abioi-gidariak ibiltzen ziren toki bertsutik. Usaian irailaren bigarren aste bukaeran. Horretarako programa bat egiten du, alde zurretik eska litekeena.

Harremanetarako:

Juan Carlos Jz. de Aberasturi:

jcaberasturi@errenteria.net

JEAN DASSIÉ:

P.LABARTHETTE@FREE.FR

BEÑAT CASTET:

BCASTET@FREE.FR

Ibilaldi honetatik at, berori egin nahi duen orok, bere kontura eta bere ardurapean egin dezake. Nabarmenezkoa da lehenengo zatia oso erraza dela. Hau da, Urruñako Mendixokoa baserritik Kalbario mendi zolaraino 30 bat minutu behar dira. Handik Xoldokogaiñara beste ordu bat. Gero, Bidasoa aldera jaisteko 1:30 pasatzen dira, azken zatia zail xamarra delarik. Ondoren, toki beretik itzul liteke edo Bidasoa ibaiari jarraituz Behobira joan liteke. Ibilbidea ez da komeni bakarka egitea, eta aldiz, oso komenigarria da Behobian autoa edukitzea.



Gehiago jakin nahi duenak hortxe dauka:

* Juan Carlos Jiménez de Aberásturiren liburua: *Vascos en la Segunda Guerra Mundial: la red "Comète" en el País Vasco (1942-1944)*. Txertoa Editoriala, Donostia 1996.

*Peter Eisner: *La línea de la libertad*. Taurus, Madrid 2004.

* Rémy: *Comète*. Librairie académique Perrin. Paris, 1966. 3 tomo.

Eskerronak:

Errenteria, Irun, Angelu, Biriatu, Urruña, Ziburu eta Donibane Lohizun herriei. Urdaburu Mendi Taldeari (Errenteria).
Ministère de la Défense (DMPA).
Angelu eta Urruñako Leclerc dendei.
Iriarte familiari (Sarobe baserrikoa, Oiartzun).

Azaleko argazkia: Claudio Albisu

Planoak: Javier Cambronero

Itzultzailea: Jose Juan Bereau
Elizalde

Egilea: Errenteriako Udala
Inprimategia: Michelena Artes Gráficas